

Donapaleu

Aurkibidea

Udalerria: Donapaleu

Sarrera



Donapaleu Nafarroa Behereko ipar-ekialdeko udalerria da, Amikuze eskualdeko herriburua, hain zuzen ere. Udalerri hauekin egiten du muga: Aiziritze-Gamue-Zohazti ipar-ekialdean; Amendüze-Unaso ipar-mendebaldean; Behaskane-Laphizketa ekialdean; Bithiriña mendebaldean; Larribarre-Sorhapürü hego-ekialdean; eta Ostankoa eta Uhartehiri hegoaldean.

(Argazkia [Argia](#)-tik hartua)

- **Biztanleak:** 1.854
- **Euskaldunak:** %19,19

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **31**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **31**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- Gazte gara gazte

Hizlariak

Pettan Prebende *Peto* (1986)



1986koa da Pettan, ekainaren 23an jaioa. Gabadin bizi izan zen 22 urte bete arte, eta gurasoekin batera Donapaleura aldatu ziren gero. Gurasoak Gabadikoak ditu, eta arreba gazteagoa du. Pettan eraikuntzan aritzen da lanean, koordinatzaile. Kulturgintzako hainbat proiektutan hartu izan du parte, eta horietako batzuk izan genituen mintzagai, Donapaleun egin genion elkarrizketan: Xilaba (Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsolari Txapelketa), Zabalik Euskara Elkarte eta Irulegi Irratiko “entzule batzordea”, besteak beste.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Euskaraz egiten saiatzen gara

- **Hizlaria(k)**: Prebende, Pettan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: DOP-001/006
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:08:02. **Bukatu**: 00:08:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararekiko sentimendua
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Egun gazteak dira Donapaleun euskara gutxien ematen dutenak.

Transkripzioa

- Ba denetik beti... betiko gauza bera. Laguntaldean beti batek edo euskeraz badaki baina bon laister frantsesera alejatzan bainon... bon gehienbat euskal giroan ibiltzen baigira, izan pesta edo aisialdietan, saiatzen gira hala ere euskaraz hitz egiten. Eta bon, hortan ere lan egiten dugu elkarte munduan, orduan... ez da beti errex, euskaldunak ere gure

artean batzutan frantsesez ari dira bainan bai, hori saiatzen beti gehienbat euskaraz egiten. Ez bada beti lortzen ere.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Donibabe Garaziko Kolegioa (DOP-001/002)

Donibane Garazin amaitu zituen Pettanek derrigorrezko ikasketak. Ordukoak ditu, eta onak, gainera, oroitzapen zein lagun asko.

2. Donapaleun euskara gutxi (DOP-001/004)

Donapaleun euskararen ezagutza ez da batere ttipia, baina kalean ez da nahi beste entzuten.

3. Amikuze eskualdea (DOP-001/008)

Euskararen transmisio haustura nabarmena izan da eskualdean.

4. Euskara ezagutu eskolari esker (DOP-001/010)

Gaur egun iparraldeko eskola publikoetan haurrek ikasten dute euskara pixka bat; lehen, hori ere ez.

5. Lagun talde zabala (DOP-001/012)

Amikuzekoak eta oztibartarrak ditu lagunak, baina baita hortik kanpora ere. Izan ere, inguruan herri txiki asko dago, eta bateko zein besteko gazteek elkar ezagutu ohi dute.

6. Besta egiteko aukera faltarik ez (DOP-001/014)

Udan, batean ez bada bestean bada besta egiteko aukerarik Amikuzen. Egun, gainera, ez da hain arraroa gazte talde batek autoa hartu eta Bilbo edo Dondostia aldera joatea.

7. Besta eredu bertsua iparraldean zein hegoaldean (DOP-001/016)

8. Elkarlanaren alde (DOP-001/018)

Euskalgintzan eta kulturgintzan aritua da Pettan, eta iparraldeko zein hegoaldeko mugimenduen arteko elkarlanaren aldekoa da.

9. Euskararen ofizialtasuna (DOP-001/020)

Euskararen ofizialtasun eza traba da Ipar Euskal Herrian; baina Pettanen ustez, gizarteak ere nahi izan behar du euskaraz egin; eta hori ere bada Euskal Herri guztiko erronka.

10. Lehen hitza euskaraz (DOP-001/022)

Zaila egiten zaio hainbat euskalduni egunerokoan edonorekin lehen hitza euskaraz egitea.

11. Entzule batzordea (DOP-001/026)

Irulegi Irratiko entzule batzordeari buruz.

12. Zabalik Elkartea (DOP-001/028)

Amikuzen euskararen alde ari diren talde guztien bateragune da Zabalik Elkartea, eta gazteenengana heltzen du zereginik handiena.

13. Gaztetxoan zaletasunak (DOP-001/030)

Iparraldeko gazteen zaletasunik agerikoena, kirola. Kirola euskaraz praktikatzeko aukera topatzen, ordea, ez dago erraza.

14. Gaztetxeetan euskarak badu lekua (DOP-001/032)

Iparraldeko gaztetxeetan euskarak badu presentzia.

15. Musika talde ainitz (DOP-001/034)

Willis Drummond, Zezenaren Taldea... Musika talde ainitz da Lapurdi eta Baxe Nafarroan.

16. Willis Drummond Bilboko Kafe Antzokian (DOP-001/035)

Kontzertu bikaina Willis Drummondek Bilbon eskainitakoa.

17. Kitzikatzen antzerki taldea (DOP-001/036)

Antzerkia egiten aritu izan da Pettan.

18. Libertimendua (DOP-001/037)

Baxe Nafarroan udaberrian antolatzen den emankizuna.

19. Libertimendua urtero (DOP-001/039)

Libertimendua urtero antolatzen dute egun. Dena den, bazterturik izan da urte luzez, eta Antton Lukuren lanari esker izan da berreskuratua.

20. Libertimendua urtean behin (DOP-001/042)

Urtean behin egiten dute Libertimendua, Donapaleun eta Donibane Garazin. Kabalkadak herri gehiagotan egiten dira.

21. hizkuntza libertimenduan (DOP-001/043)

Kale hizkera erabiltzen da libertimenduan, eta umoreak eta jokoak garrantzia handia dute.

22. Askok erdaretan errazago, euskaraz baino (DOP-001/045)

Lagunartean, jendea erdarara lerratzen sumatzen du sarritan Pettanek. Bere ustez, hori da askok errazago egiten duelako frantsesez euskaraz baino, eta komunikabideetatik jasotzen ditugun erreferentziak erdarazkoak direlako.

23. Irainak eta hitz larriak erdaretan gehienbat, euskaraz baino (DOP-001/047)

Hitz larriak, irainak; joerak.

24. Musika kontsumitzeko ohiturak (DOP-001/049)

Nagusiki musika internet bidez kontsumitzen da egun, baina inguruko talde ezagunen diskak erosteko joera ere bada. Kontzertuetara joateko ohitura ere badute Pettanek eta haren lagunek.

25. Telefonoarekiko menpekotasun beldurgarria (DOP-001/051)

IKTen artean, bereziki aipagarria da mugikorrekiko dugun dependentzia.

26. XiLaBan gai-jartzaile taldean (DOP-001/053)

2014ko Xiberu, Lapurdi eta Baxe Nafarroko Bertsolari Txapelketa Nagusian gai-jartzaile taldean aritu zen Pettan, estrainekotz.

27. Bertsotan jardun, baita ere (DOP-001/054)

Bat-bateko bertsogintzan aritzen da Pettan, lagun artean eta, hasiera batean, behinik behin, libertimendua helburu. Amikuze eremua ez da bereziki inguru bertsozalea egun, baina zaletasuna goruntz doa, Pettanen ustez, euskararen berreskurapenarekin batera.

28. Gazteak hurbildu dira XiLaBara (DOP-001/056)

Gazte jende ainitz sumatu dute XiLaBako bertso saioetara hurbiltzen.

29. Ikus-entzunezkoak gazteak euskarara hurbiltzeko (DOP-001/058)

Interneteko komunikazio proiektuak izan daitezke bide bat gazteak euskarara hurbiltzeko. Pettanek halako baten berri ematen du.

30. Baliabide eskasiak ezin du aitzakia izan (DOP-001/060)

Iparraldean ere elkarteak ohituta daude baliabide gutxirekin egitasmoak aurrera ateratzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com